



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 13a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa. Erretiratutako osoko zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan eginen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen politikoak, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, IUN-NEB Foru Hobetzea aldatzeko balizko akordio batetik kanpo uzteko Nafarroako Gobernu-ko lehendakariak dituen arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egin (8. or.).

—Galdera, irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusaileri buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin (8. or.).

—Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egin-dako txostenari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (9. or.).

—Galdera, etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (10. or.).

- Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin [\(11. or.\)](#).
- Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin [\(12. or.\)](#).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Protokolo buruaren bitarte baterako izendapena luzatzea [\(14. or.\)](#).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontratu publikoei buruzkoa.

ERRETIRATUTAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Aralar parlamentu-taldeak idazki bat aurkeztu du kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa erretiratzen duela adieraziz. Zuzenketa hori 2006ko otsailaren 28ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitaratu zen. Aipatu idazkia ikusita, ERABAKI DA:

1. Osoko zuzenketa hori erretiratutzat jotzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan eginen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure herrian bizi dugun indarkeriari eta gatazkari elkarrizketaren bidezko konponbidea emateko lan eginen duela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hori bera egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoe-

tan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Indarkeria politikoa behin betiko desagertzea bideratuko duen konponbidearen bilaketan dauden itxaropenak, eta indarkeria horrek gure gizartean eragin dituen eta eragiten dituen ondorioak direla eta, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gure herriko gatazkari eta indarkeriari elkarrizketaren bidezko konponbidea ematen lan egiteko, bai eta egoera horrek eragin duen sufrimendua aitoritzeko eta harengatik ordaina emateko ere, eta adiskidetzearen aldeko eragile aktiboa izateko, irabazlerik eta galtzailerik gabeko bake baterako oinarriak jarri ahal izan ditzagun.

Iruñean, 2006ko otsailaren 2an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko eledun Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Ingurumen Ministerioak txosten bat eskatu zion Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargoari ltoizko urtegiaren segurtasunarekin loturiko zenbait alderdiri buruz.

Txosten horren edukia berriki ezagutu dugu. Txostenaren izaera ofiziala, bestalde, Ingurumen ministro Cristina Narbonak berretsi du. Txostenean, era askotako gomendioak jasotzen dira urtegiaren ezkeraldeko mazelaren eta presaren beraren segurtasuna bermatzeko, bai urtegia betetzeko prozesuak irauten duen bitarteko bai gerorako ere.

Horien artean, azpimarratzekoa da arrisku sismikoari buruzko beste azterlan bat egiteko gomendioa. Haren esanetan, egun dagoena, 1989 eta 1992 bitartean eginikoa, bi alderditan "hobetu daiteke" eta honako neurriak proposatzen ditu: egun dauden datuak handitzea eta hobetzeko ltoizko presaren inguruan beste hiru azelerometro jartzea; eta egungo ezagutza zientifiko-teknikoen araberrako analisi-teknikak erabiltzea. Txostenak zehazten ditu, orobat, etorkizuneko azterlanean kontuan hartu beharko liratekeen alderdiak metodologiari dagokionez, arriskuaren kalkuluari dagokionez eta emaitzei dagokionez.

Txostenean azpimarratzen da beharrezkoa dela azterlan hori gaurkotzea "2004ko krisialdi sismikoari buruzko datuak sartuz eta zona sismogenetikoak eta atenuazio-legeak birdefinituz arrisku sismikoari buruzko analisisietarako egungo metodologiaren araberr, betiere presa kargan eta abian jartzeko programaren jarraipen eta kontrol lanen barruan".

Txosten horretako gomendioak erreferentzia gisa hartuta, eta kontuan hartuta bai urte hauetan obra hori dela-eta gizartean sortu den alarma, bai azpiegituraren beraren tamaina, eta ulertuta Nafarroako erakundearen erantzukizuna dela betekizun guzti-guztiak betetzea herritarren segurtasuna bermatzeko, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak estatuko gobernua premiatzen du beste azterlan bat egin dezan arrisku sismikoari buruz. Txosten horretan egungo analisi-teknikak erabiliko dira, dauden datuak handitu eta hobetuko dira eta 2004ko krisialdi sismikoari buruzko datuak sartuko dira.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkezturiko idazki batean Eledunen Batzarrari eskatzen zaio Kontuen Auzitegiak fiskalizazio txosten bat egin dezan. Idazki hori ikusita, Kontuen Auzitegiari buruzko maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoko 45. artikulua babesean, Erregelamenduko 37.1 artikulua erekin bat, ERABAKI DA:

1. Aipatu eskaera moztuzat tramitatzea.

2. Ondoko mozioa tramitera onartzea: "Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz"

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

4. Haren tramitazioa Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean egitea.

5. Zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen bukatuko dela ezartzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako hau:

AZALTZEN DU:

Canal de Navarra, S.A. sozietatea (Canasa) egiten ari da Nafarroako Ubidea; sozietate horren

% 40 Nafarroako Gobernuarena da eta % 60 Estatuko administrazio zentralarena. Hori dela eta, obra itzel horretara funts publikoen kopuru handiak bideratzen ari dira, Estatuarenak eta Nafarroako Foru Komunitatearenak.

Berriki, Nafarroako Ubidearen III. tarteko adjudikazioan gertaturiko irregulartasunak salatu dira, eta tarte horren exekuzioan izandako milioitako desbideratzeak.

Hala eta guztiz ere, kontraesanak daude salataileek eta Nafarroako Gobernuak espedientearen tramitazioari eta exekuzioari buruz eman dituzten datu eta kopuruetan.

Gure ustez, ezin ditugu bertsio kontraesankor horiek besterik gabe onartu: benetan egiaztatu behar dugu ea irregulartasunik egon den, eta halakorik egon bada, argitu beharra dago irregulartasun horiek noraino iritsi diren eta nor diren haien erantzuleak.

Sozietate publiko horren kapitalaren gehiengoa estatuko administrazio zentralarena denez, Kontuen Auzitegiari buruzko Lege Organikoko 4.1.f) artikuluari jarraituz, fiskalizazio organo horri dagokio Canasaren jardura ekonomikoa fiskalizatzea.

Halaber, lege organiko horren 45. artikuluari jarraituz, Nafarroako Parlamentuak gaitasun juridikoa dauka Kontuen Auzitegiari Canasaren fiskalizazio ekonomikoa eskatzeko.

Hori guztia dela eta,

Eledunen Batzarrari eskatzen dio honako erabakia har dezan:

Kontuen Auzitegiari eskatzea Nafarroako Ubidearen III. tarteko obren kontratazioari eta exekuzioari buruzko fiskalizazio txostena egin dezan.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen politikoa, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak aintzatesten ditu eta merezi duten omenaldia egin nahi die Clara Campoamor aitzindari zuten emakumeei, orain dela 75 urte defenditu baitzuten emakumeek botoa emateko eskubidea demokrazia erabatekoa eta parekidea lortzeko funtsezko osagai gisa, eta emakumeak bizitza publikoan betetzen duen lan garrantzitsua aintzat hartuta, emakumeak animatu nahi ditu bizitza politiko publikoan parte-hartze aktiboa izan dezaten.

2.- Nafarroako Parlamentuak erakunde aitzindaria izan behar du berdintasuna lege-ekintzaren bitartez sustatzeko garaian.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Nazioko Gobernuaren arteko lankidetzaren sustatzen du, Generoko indarkeriaren aurkako lege integralean ezarritako neurri guztiak garatu eta aplikatu ditzaten, bi gobernuen helburua baita gure gizartetik emakumeen aurkako erasoak eta krimenak lehenbailehen desagerraraztea.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Nazioko Gobernuaren arteko lankidetzaren sustatzen du, behar diren neurriak har daitezkeen emakumeek lanaren arloan pairatzen

duten bazterkeria deuseztatzeko; izan ere, emakumeen lansariak % 27 txikiagoak dira gizonezkoen lansariak baino. Horretarako, tresna pizgarriak emanen zaizkie enpresei, soldatak pareka ditzaten, bai eta gomendioak ere, lan ordutegiaren antolaketa hobetu dezaten eta emakumeek zuzendaritza organoetan duten presentzia areagotu dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du neurriak hartzea aurrera egiteko lana eta norberaren bizitza bateragarri egitearen arloan eta emakumeak benetan askatzeko irmoki errotuta duen gizarte eginkizunetik, zeinaren arabera ia inoren laguntzarik gabe zaintzen baititu umeak, etxea eta mendetasuna dutenak.

6.- Nafarroako Parlamentuak dei egiten die gure agintariei koordinazioa eta lankidetzaren sustatzen, beren eskumenen esparruan, Generoko indarkeriaren aurkako lege integralaren eta Mendetasunaren legearen aplikazioan, horretarako behar diren baliabide guztiak jarritz.

7.- Herritar guztiak gonbidatzen ditu parte har dezaten emakumeek kulturaren, artearen eta zientzietan egin dituzten ekarpenak jasota uzteko antolatzen diren kultur ekitaldi guztietan.”

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, IUN-NEB Foru Hobetzea aldatzeko balizko akordio batetik kanpo uzteko Nafarroako Gobernuak dituen arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea IUN-NEB Foru Hobetzea aldatzeko balizko akordio batetik kanpo uzteko Nafarroako Gobernuak dituen arrazoiei buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun Felix Taberna

Monzónnek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Berriki, Nafarroako Gobernuak dituen arrazoiei buruz gogoratu du exekutiboarena dela Foru Hobetzea aldatzeko ekiteko ahalmena. Halaber, ohartarazi du ez duela Foru Hobetzea aldatzeko prozedurarik abiatuko Unión del Pueblo Navarro (UPN), PSN-PSOE eta Nafarroako Demokratikoen Elkargutia (CDN) alderdiak ados jarri ezean.

Lehendakariaren ustez, zein arrazoi daude akordio horretatik kanpo uzteko, besteak beste, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldea?

Iruñean, 2006ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusailei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusailei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Otsailaren 9an Hezkuntza kontseilari Luis Campoy eta Hezkuntza eta Zientzia ministro María José San Segundok izaniko bileran aztertutako gaien artean, irakasleen prestakuntza dago. Hori zela eta, kontseilariak esan zuen Hezkuntzaren Lege Organikoaren garapena aurreikusteko, funtsezkoa zela irakasleen prestakuntza eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuak horri ekinen ziola lehenbizi.

Gogoratu beharra dago irakasleen prestakuntzaz arduratzen den atalak 2004tik izoztuta daudela, eta, esate baterako, 73.924 eurotik euro batera jaitsi dela "prestakuntza jardueretarako materiala erostea" kontusailean jasotako diru kopurua.

Irakasleentzako laguntza zentroek (ILZk) prestakuntzaren arloko erreferentzia zentroak izan behar dute. Hori dela eta, behar diren baliabideak eduki behar dituzte eskaintzen duten aholkularitza punta-puntakoa eta apartekoa izan dadin, batez ere izugarri azkar aldatzen diren gaietarako;

esate baterako, teknologia berriak hezkuntzan aplikatzea.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Uste ote du gobernuak nahikoa dela aurrekontuetan euro 1 jartzea ILZk beren lana egin dezaten irakasleen prestakuntzarako baliabide zentro gisa?

2. Zein diru aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak irakasleentzako prestakuntza zentroentzat, eta haiek egokitzeko teknologia berrien erabileran erreferentzia izan daitezzen Hezkuntzaren Lege Organikoak indarra hartzen duen une beretik?

4. Ba al daki gobernuak aurrekontuak izoztea-kin duela bi urtetik hona teknologia berriak teknologia huts bihurtu direla?

5. Aurreikusia al du gobernuak materiala erosteko dirua –euro bat, gaur egun– handitzea? Zentzuzkoa?

6. Aurreikusia al du gobernuak 2007. ekitaldirako irakasleentzako prestakuntzarako kontusailetan jarritako kopuruak handitzea?

Iruñea, 2006ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeñariaren Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egindako txostenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeñariaren Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egindako txostenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Ingurumen Ministerioak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeñariaren Elkargoari txosten bat eskatu zion Itoizko urtegiaren segurtasunarekin zerikusia zuten zenbait alderdiri buruz; txosten hori, oraindik ere ofiziala ez bada ere, gure erkidegoko komunikabide batean argitaratu da.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena. Ea Nafarroako Gobernuak, ofizialki nahiz bestela, txostena eta hura prestatzeko prozesua ezagutu ote dituen.

Bigarrena. Hari buruz zer balorazio egiten duen.

Hirugarrena. Ea aurreikusia ote duen jardutea, bere erantzukizunez baliatuz, aipatu txostenean (edo, kasua bada, behin betikoa eta ofiziala izan den txostenean) zehazten diren gomendio guztiak bete daitezen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin

dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan.

- Zein laguntza ekonomiko jaso ditu Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako Gobernutik immigranteak gizarteratzeko eta hezkuntza laguntzarako 2000., 2001., 2002., 2003., 2004. eta 2005. urteetan? Laguntzaren kontzeptuari eta zenbatekoari buruzko informazioa nahi dugu.

- Nola erabili ditu Nafarroako Gobernuak laguntza horiek? Nola egin da banaketa? Zein irizpide erabili dira estatuaren laguntza horiek banatzeko?

- Zein entitatek edo erakundek hartu dituzte laguntzak? Zein dira diruz lagundutako proiektuak?

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den urtarrilean ezagutu dugu Marokoko eta Nafarroako selekzioen arteko futbol partidak –2004ko abenduaren 28an, errugabeko santuen egunean, izan zena– ekarri zituen gastuetako fakturen azalpena. Bertan, faktura bat ikusi dugu, “Nafarroako selekzioaren kamisetak” kontzeptua duena, “Puma Estudio 2000, S.A.” enpresak egina, 61.248 euro egiten dituena; hau da, 10.190.809,72 pezeta.

Halaber, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak sinaturiko lankidetzaren arabera, foru gobernuak 165.000 euro jarri zituen futbol partida egiteko; Nafarroako Kutxa Fundazioak, berriz, konpromisoa hartu zuen “ekitaldirako behar diren kontratazioak eta haren zuzendaritza kudeatzeko, betiere Nafarroako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin, bai eta hartatik ondorioztatzen diren gastuak finantzatzeko ere, Nafarroako Gobernuaren edo, kasua bada, Nafarroako Futbol Federazioaren ekarpenak haiek betetzen ez dituen zatian”.

Kontuan hartuta kirol ekitaldiaren guztizko kostuek 263.257 euro egin zutela (43,8 milioi pezeta), esan daiteke 98.257 euro Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Nafarroako Futbol Federazioak ordaindu zituztela.

Gainera, fakturei buruzko aipatu azalpenean, Nafarroako Futbol Federazioaren faktura bat badago, “Nafarroako Futbol Federazioaren kirol

ekipamenduak” kontzeptua duena eta 15.000 euroko gastua jasotzen duena.

Hori guztia dela eta, eta kirol ekitaldi horri dagokionez, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Nafarroako selekzioarentzako kamisetez gainera, ba al dago beste materialik fakturei buruz aurkeztutako azalpeneko “Nafarroako selekzioaren kamisetak” kontzeptu orokorraren azpian?

2. Zein material eta kontzeptu sartzen dira “Nafarroako Futbol Federazioaren kirol ekipamenduak” –15.000 euroko faktura– kontzeptu orokorraren azpian?

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak egokia, azaltzeko modukoa eta Nafarroako zergadunek onartzekoa dela Puma Estudio 2000 S.A.ri “Nafarroako selekzioaren kamisetak” kontzeptuarengatik ordaindu zitzaion 61.248 euroko fakturaren kostua?

4. Baldin eta gehienez ere hogeita bi (22) kamiseta enkargatu eta egin baziren, uste al du egokia, azaltzeko modukoa eta Nafarroako zergadunek onartzekoa dela kamiseta horietako bakoitzak 2.748 euroko (463.218 pezeta) kostua izatea, eliteko taldeek eta selekzio nazionalak erabiltzen duten materialaren kostuak gutxitan aleko 200 euroko kostua gainditzen duenean, eta klubek berek beren promozioetan aleko 100 euro baino gutxiagoko prezioan saltzen dituztenean?

5. Konturatu al da “Nafarroako selekzioaren kamisetak” kontzeptuaren kostuak kirol ekitaldiaren guztizko gastuaren % 23,25 direla? Egokia, azaltzeko modukoa eta Nafarroako zergadunek onartzekoa dela iruditzen al zaio? Normala eta logikoa al da kontzeptu horrengatik eginiko gastua?

6. Toki Administrazioako kontseilari Alberto Catalán jaunak, Gobernuko eleduna den aldetik, iritziren bat ba al du horri buruz, azalpenen bat bilatu al du edo/eta erantzukizunen bat eskatu al du kamiseta horien aipatu kostua dela eta? Kasua bada, zein departamentu, atal, entitate, enpresa edo pertsonari eskatu dio?

7. Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Nafarroako Futbol Federazioak kirol ekitaldirako emandako 98.257 euroetatik, zenbat jarri zuen entitate horietako bakoitzak?

8. Urtero Nafarroako Futbol Federazioari ematen dizkion dirulaguntzen kopuru gehigarriren bat eman al dio Nafarroako Gobernuak, aipatu ekitaldirako hitzarturik zeukan 165.000 euroko gain-kostua ordaintzen laguntzeko?

9. Zein diru zenbateko eman zizkion Nafarroako Gobernuak Nafarroako Futbol Federazioari 2003., 2004. eta 2005. urteetako ekitaldietan laguntza gisa? Zein kontzepturengatik? Zein da egungo 2006. urterako aurreikusitako ekarpena eta zein kontzepturengatik emanen da?

10. Kontuan hartuta 2005eko abenduaren 26an Nafarroako eta Txinako selekzioen arteko partida izan zela, zenbateko gastuak sortu ditu partida horrek? Zein izan da fakturen azalpena? Zein izan da Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekono-

mikoa? Zein beste entitatek lagundu zuten ekitaldia finantzatzen eta zenbat ordaindu zuten?

11. Nafarroako eta Txinako selekzioek 2005ean jokatu zuten partida zela-eta, eta aipatu ditugun aurrekariak daudela, Toki Administrazioiko kontseilariak, Gobernuko eleduna den aldetik, edo Gobernuak berak, bere erantzukizun publikoaz baliatuz, neurriren bat hartzea eskatu al zuen aurreko partidako –2004ko abenduaren 28an, errugabeko santuen egunean jokatu zena– “Nafarroako selekzioaren kamisetak” kontzeptuaren izugarritzko kostuak saihesteko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako eta Marokoko selekzioen arteko futbol partida dela-eta Nafarroako Futbol Federazioak egunkarien bitartez eman dituen azalpenen aurrean, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Ekitaldiaren publizitate kostuek 91.000 euroko kopurua gainditzen dutenez, jakin nahi dugu

zein entitate agertzen ziren Nafarroa-Maroko partidua zela-eta egin ziren publizitate-iragarkietan, idatzizko prentsan, irratian, telebistan, hedabide digitaletan, karteletan, euskarrietan eta publizitate estatikoan?

2. Zergatik sinatu du bakarrik Caja Navarra Fundazioak ekitaldia antolatzeko hitzarmena?

3. Aurreikusia al du Nafarroako Gobernuak kirol ekitaldiaren hurrengo edizioetan hitzarmena beste entitate batzuei eskaintzea?

4. Zergatik ez da lehiaketa publiko bat egiten ekitaldi honi laguntza emateko, bertara aurkez daitezkeen interesa duten enpresa eta entitate guztiak?

5. Zenbat kamiseta saldu zituen Nafarroako Kutxa Fundazioak? Zenbat kamiseta banatu ziren dohainik?

6. Zein dirusarrera lortu ditu Caja Navarra Fundazioak kamiseta horiek saltzeagatik?

7. Hitzarmenen bat ba al dago Nafarroako selekzioaren kamisetak Nafarroako Kutxa Fundazioak beste inork ez erosteko, saltzeko edo banatzeko, ala beste edozein pertsonak edo entitatek erosi, saldu eta banatu ahal ditu?

8. Jakin nahi dugu zer iritzi duen Osasun Departamentuak Toki Administrazioiko Departa-

mentuaren zeharkako finantziazioaz eginiko kirol ekitaldiaren kariatara hurrei eman zitzaien opari sortan metxeroak egoteari buruz. Neurriren bat hartuko al du Osasun Departamentuak gure

ustez okerra den jokamolde hori berriz gerta ez dadin?

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Protokolo buruaren bitarte baterako izendapena luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Protokolo buruaren bitarte baterako izendapena luzatzea

2005eko apirilaren 27an, Belen Armendáriz Semberoiz andrea izendatu zen, bitarte baterako, Protokoloko buru, lanpostu horren titularra den Natividad Hualde Arbizu andrea baja egoeran zegoen bitartean.

Hualde andreak erretiroa hartu duenez eta lanpostu hori hutsik dagoenez, bidezkoa da aipatu ebazpena egungo egoera berriari egokitzea.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren antolaketarako erregelamenduko 19.3 artikuluan ezarritakoaren babesean, behean aipatzen den egunean, honako erabakia hartu dut.

ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Administrarien Kidegoko funtzionario Belén Armendáriz Semberoiz andrearen bitarte baterako izendapena, Protokoloko buruarena, luzatzea, 2006ko otsailaren 1etik aurrerako eraginekin, aipatu lanpostua hutsik dagoen bitarterako.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Legelari nagusia: Pablo Díez Lago



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	